

# Kaleko hiztEGIA

Joan zen urriaren 25ean, Etxerik Gabeko Pertsonen Egunean, Espainiako Caritasek, beste behin, pertsona asko etxerik gabe, edo eta leku ez oso osasungarrietan bizi direla aditzera eman zuen. Etxerik gabeko pertsonen kanpainak ([Campaña de Personas Sin Hogar](#)) inpaktu-mezu bat aukeratu zuen egoera salatzeko: "Etxerik ez izateak, hil egiten du".

"Etxerik ez izateak -dio Enrique Domínguez Espainiako Caritaseko Etxerik Gabeko Pertsonen programaren arduradunak- eragotzi egiten du etxe-giroa izatea, gizarte-harreman normalizatuak izatea, oinarrizko babes-eremu bat izatea, eta, gainera, eragin handia du osasun fisikoan eta mentalean".

"Etxerik Gabeko Pertsonen Estrategia Nazionala (2015/2020)" lanaren arabera, etxerik gabeko pertsonen bizi-itxaropena, 42-52 urte bitartekoa da, hau da, biztanleria orokorrak baino 30 urte gutxiago.

CARITAS GIPUZKOAren Etxerik Gabeko Pertsonen saila, lanean ari da kale gorrian dauden pertsonen, etxebizitzetan, logeletan... aterpetu daitezten. Egoera horretan dauden pertsonen, ekonomikoki, laguntza luzatzen zaie etxebizitza duina eskuratzeko hasierako prozesu horretan.



Asko dugu ikasteko kale gorriaz. Eta zer esanik ez Etxerik Gabeko pertsonen inguruan. Beraz, hitz bat ulertzen ez dugunean, edota bere esanahiarekin zalantzak ditugunean, hiztegieta jotzen dugun bezala, beste hainbeste egin dugu.

Kale gorrian, etxerik gabe dauden pertsonen hiztegia arakatu nahi izan dugu, hitzen zentzua berbera ote den ikusteko. Era horretan ezagun bezain ezezagun zaizkigun hitzen azalpena ulertzeko aukera izango dugu.

CARITAS GIPIIZKOAko Etxe Gabeko Pertsonen saileko gizarte langileei, hamaika hitzen, eta esaldi baten azalpena eman diezaguten eskatu diegu; kale gorrian dauden pertsonen errealitateaz hausnartu dezagun, alegia.

Hona etxearekin zerikusia duten hitzen aurrean kale gorrian dauden pertsonekin lanean aritzen diren CARITAS GIPIIZKOAko kideen ikuspuntua:



# HiztEGIA

## Hotza

*Klimatologiari zein harremani dagokienez, arrisku erantsiko eragilea.*

## Kale (gorria).

*Irteera zailtzen duen, eta bizitza galtzeko arriskuzko tranpaz betetako labirintoa.*

## Isiltasuna

*Injustiziaren aurrean, konplizitatea.*

## Duintasuna

*Gure akonpainamenduaren funtsezko oinarria.*

## Etxea

*Bizitza-proiektu bat sortzeko, segurtasuna, laguntza eta oinarria.*

## Etorkizuna

*Orainaren premia larriak harrapatzen zaituztenean, urruna eta zalantzaz betea.*





### **Segurtasunik eza**

*Erasotua, errea, bortxatua, lapurtua, atxilotua, jazartua edo deportatua, estigmatizatua, baztertua... izateko beldurra. Eta, aldiz, gizartearentzako segurtasun-ezaren elementutzat hartzea.*

### **Ikustezina**

*Ikusi, -kale gorrian dauden pertsonak- ikusten ditugu baina ez ditugu onartzen; bazter batera utzi, eta ikusezin bihurtzen ditugu. Ikusi nahi dugunari bakarrik jartzen diogu arreta.*

### **Ilusioa**

*Goiari eusteko motorra. Itxaropena.*

### **Berotasuna**

*Hotza partekatzea. Aldamenean izatea. Laguntzea.*

### **Bakardadea**

*Desiratzen ez den bidelaguna.*

### **"Beraiek nahi dutelako daude kale gorrian"**

*Betiko gezurra, eta gizarte-arazo baten aurrean erantzukizunak saihesteko justifikazioa.*